

Buruntzaldea euskaraz sare sozialetan

Buruntzaldea Euskaraz-ek sare sozialetan profilak ditu. Sakatu "atsegin dut" eta jarraitu albisteak



Gidabaimena euskaraz

2012an 112 ikaslek egin dute gidabaimeneko arlo teorikoa euskaraz; beraz, 3 urtetan kopurua laukoiztu egin da Buruntzaldean



Ayudas económicas para empresas

Los ayuntamientos de Buruntzaldea ofrecen ayudas económicas a las empresas que tomen medidas para incrementar su uso de euskera. Además, realizan un diagnóstico gratuito de necesidades lingüísticas de cada empresa. Para más información acude a tu servicio municipal de euskera o envía un e-mail a baietzgurean.kontsultak@gmail.com.



Lanbide Heziketako materiala, euskaraz ere eskuragarri

Sektore askotarako material tekniko eta didaktikoa euskaraz dago eskuragarri jakinbai.eu webgunean

Laneki Elkartearen Lanbide Ekimenaren bidez Lanbide Heziketarako materialak euskaratzen dihardute eta jakinbai.eu webgunearen bidez edonoren eskura jarri dituzte.

Euskaratutako material tekniko eta didaktiko hori guztia oso erabilgarria da bai Lanbide Heziketako ikasle eta irakasleentzat eta bai ukitutako sektoreetako enpresentzat.

Sektore askotako materiala aurki daiteke webgunean, hala nola: nekazaritza eta arrantza, arte grafikoak, mekanika, elektronika, zurgintza, osasuna, kimika, komunikazioa, marketina, ostalaritza eta turismoa, elikagaigintza, administrazioa, kirola...

Edonork (edozein ikastetxek, enpresak nahiz norbanakok) du aukera material edo hitz teknikoak euskaratu eta jakinbai.eu webgunean argitaratzeko edo deskargatzeko. Aski da webgunearen komunitatean izena ematea.

Euskaratutako termino tekniko guztiekin sektoreka sailkatutako euskara-gaztelania hiztegi terminologikoa ere jarri dute eskuragarri, helbide honetan: <http://jakinbai.eu/hiztegia>.



Buruntzaldeko udalek Lanbide Heziketako eskualdeko ikastetxeei laguntza eskaintzen diete beren ikasmateriala euskara dezaten.

18. KORRIKA amaitu da

Andoainen abiatu zen eta Buruntzaldetik ere igarota Baionan bukatu da.

“Eman euskara elkarri” leloarekin egin dute aurten Korrika, eta beti bezala euskaraz bizitzeko aldarria izan da 10 eguneko bidea.

Azken mezuan “Herri hau ere euskaraz pentsatuko dugu, edo ez da izanen. Hautatzen diogun ama hizkuntzaren arabera dago gure herriaren geroa” irakurri zuen Amets Arzallusek.




Euskara, munduko 51. hizkuntza

Calvet Barometroak munduko hizkuntzen bizi-indar eta pisuaren 2012ko datuak kaleratu ditu

500.000 hiztun baino gehiago dituzten munduko 563 hizkuntzak neurtu eta sailkatu dituzte. Hiztun kopuruaz gain, hizkuntza baten bizi-indarra edo “pisua” neurtzeko garrantzitsuak diren beste 10 faktore aintzat harturik, munduan “pisu” gehien duen hizkuntza ingelesa da, bigarrena gaztelania eta hirugarrena frantsesa.

Sailkapen horretan mandarinera 10. lekuan geratu da. Euskara, berriz, munduko 51. hizkuntza da.



<http://www.argia.com/blogak/kike-amonarriz>